

EUSKARA BILBON**I. Aurkezpena**

Argitaratu berri du Bilboko Euskara Zerbitzuak, lan honi ezarri diogun izenburua duen liburuska interesgarri bat. Orain artean, susmorik ugari bagenu ere ezer gutxi genekien ziurtasunez Euskal Herriko hiri handi honetan euskarak zuen egoerari buruz.

Lan horrek, aipatu berri dugun bezala, Euskal Herriko hiri handieneko hizkuntz egoerari buruzko datuak eskaintzerakoan, hainbatetan euskarak gizarte moderno industrializatu honetan izan duen bilakaera eta gaur egungo egoera isladatzen dizkigu.

Zer esanik ez, Bilbo eta beraren inguruak izan ditugu azken bi mendoetan biztanlego ugalketarik handiena jasan duten Euskal Herriko gunerik garrantzitsuenak eta, etorliar gehientsuak Euskal Herrikan kanpoko Lurraldeetatik etorriak zirenez, erdara gure artean sartu eta hedatzeko aterik zabalena.

Era berean, une honetan beste herrialdeetako hiriburuak handitzerakoan nolabaiteko oreka gertatu bada ere, Bilbo izan dugu Euskal Herriko ekonomiaren bultzailea eta industrializazio zein aurrerakuntza gunerik nagusiena.

Bilbok eragin izugarria izan du eta izaten jarraitzen du gaur egun ere. Gerora begira ere, handitu egingo da, nonbait, beraren garrantzia «superportuaren» eraginaren ondorioz. Europak Atlantiar Ozeanora begira duen porturik garrantzitsuena gertatu zaigu eta merkatal gunerik indartsuena. Beraren inguruan egin bidean diren Autoestrata zein Autobideek ere, areagotu baino ez dute egingo guzti hori. Beraz, Euskal Herriko hiririk garrantzitsuena izaten jarraituko du.

Euskararen egoeraz kezkatuta gabiltzanok, bada, ezin dugu alde batera utzi Bilbo hiriak gure hizkuntzaren geroan izan dezakeen eragina. Eta hori historian zehar Euskal Herria erdalduntzeko bide izan den bezala euskararen iraupenerako «motore» gerta daitekeelako.

Aspaldi entzun nion norbaiti, Bilbon izango zela euskararen iraupenerako azken burruka, Bilbo euskalduntzean datzala euskararen iraupenaren zutabe nagusia. Eta, behar bada, oraindik urte askotako zeregina eta ahalegina izango bada ere, hala izan daiteke. Honelako hiri handiek, gurea bezalako Herri txikietan onerako zein txarrerako eragin handia izan ohi dute.

Azken urteotan, noiz behinka irakurri izan ditugu, hor-hemenka, euskarak Bilbon duen egoerari buruzko zeharkako datuak. Sarritan, aipatu dugun bezala, susmoak, zientifikoki frogatu gabeko inpresio hutsak baino ez ziren; bertako kale eta auzoetatik zehar ibiltzean jasotako azaleko lehen inpresioak, nonbait. Adibidez, Donostia oso hiri euskalduntzat jo izan dugun artean Bilbo eta Gasteiz zeharo erdalduntzat, euskaldunen bila argimutila eskuetan hartuta ibili beharreko gunetzat jo izan ditugu, gero, euskararen aldeko ekintza ezberdinetan hainbeste jende euskaldun ikustean harrituta geratu izan bagara ere.

Orain esku artean dugu, zorionez, bertako euskararen bilakerari eta egoerari buruzko datu multzoa. Idazlantxo honetan,

garrantzitsuenak eskaini nahi dizkizuet. Zehatzagoak eskuratu nahi izanez gero, Bilboko Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezakezue.

OJIARRA: Hemen eskaintzen diren datuok, Euskara Bilbon liburuskatik hartuta daude eta hobeki ulertzeko bonakook izan behar dituzue kontutan:

- a) Euskararen bilakaera eta egoerari buruzko datuak 1981/1986.eko erroldako datuetatik atera direla.
- b) Euskararen erabilerari buruzkoak SLADECO-k egin berri duen ikerlanetik hartuak direla.
- c) EKA: Euskadiko Komunitate Autonomoa dela
- d) Azkenean ematen den balorazioa, -TXRPETIX-ek ikerketako datuei egiten dien iruzkinaren laburpena duzuela.

II Euskararen ezagupenari buruzko datu laburrak

Lehen parte honetan erroldetako datuak (1981/1986) erabiliko dira Bilbotik azken aldian bananduak izan diren Udalerrri berriei dagozkienak kendu ondoren.

1. Euskara hitz egiteko gaitasuna:

Eusk. ezag. Bilbo	GUZTIRA %		ONGI %		ZERBAIT %		EZER EZ %	
1981	384.495	100,0	23.981	6,2	58.420	15,2	302.094	78,6
1986	374.207	100,0	33.956	9,1	76.042	20,3	264.209	70,6
81-86	- 10.288		+ 9.975	+ 2,9	+ 17.622	+ 5,1	- 37.885	- 8,0

- Bost urtetako epean Bilbotarren hizkuntz ezagupenaren egoera bobetu egin da.
- Esan daiteke euskarak irabazi dituen gebienak erdaratik etorri direla.

- Irabazi hauek handik edo txikiak izan diren jakin ahal izateko ikus dezagun zein den Hego Euskal Herriko hiriburuen bilakaera:

**EUSKARAZ HITZEGITEKO GAITASUNAREN BILAKAERA
BILBON ETA HEGO EUSKAL HERRIKO BESTE HIRIBURUETAN.**

BILBO	1981	6,2		15,3		78,6	
	1986	9,1	+ 2,9	20,3	+ 5,1	70,6	- 8,0
GAZTEIZ	1981	3,4		11,1		85,5	
	1986	5,9	+ 2,5	17,4	+ 6,3	76,6	- 8,9
DONOSTIA	1981	21,8		26,8		51,4	
	1986	26,7	+ 4,9	23,4	- 3,4	49,9	- 1,5
IRUÑEA	1981	5,7		7,4		86,9	
	1986	6,1	+ 0,4	7,3	- 0,1	86,6	- 0,3

- Hiriburu denetan euskararen aurreraketa nabari bada ere, Gasteiz eta Bilbo ditugu aurrerakada handiena hartu dutenak. Agian, kuadroko datu horiei zera erantsi behar zaio, Gasteizen azken-aldian izan den inmigrazioa, Eusko Jaurlaritzaren inguruko administrazioa dela bide, hainbatetan euskalduna izan dela.
- Aparteko garrantzia du Bilbon gertatutako bilakaerak, euskaldunen ugariaketa zenbakitan neurtuz gero, Elkarte Autonomoko biztanleen ja bostetik bat bertan bizi denez (%17), beste hiriburu guztiak elkartuta baino handiagoa izan da euskaldun berrien (inmigratuak zein euskaldunduak) ugariaketa.
- Nabarmenak izan dira, baita ere, 1981-1986 urteen artean euskaraz idazteko gaitasunean izandako aldaketak ere. ONGI eta NEKEZ idazten dutenak oso pareko kopurua (%4-%3,9) gehitu dira EZEREZ idaztetik aldendu direnak %7,9ra heltzen direla. (1981.ean 16.148 biztanlek zuen euskaraz idazteko

gaitasuna; 1986.ean, ostera, 31.272 biztanlek; bost urte horietako epealdian, EZER EZ zekitenen arteko 32.705 biztanle jakitera aldatu da).

2. Hizkuntz tipologien banaketa Bilbon

HIZKUNTZ TIPOLOGIAK 86	GUZTIRA	%
1. Euskaldun alfabetatuak	24.718	6,6
2. Euskaldun erdi alfabetatuak	6.841	1,8
3. Euskaldun alfabetatugabeak	2.397	0,6
EUSKALDUNAK	33.956	9,0
4. Ia-euskaldun alfabetatuak	52.012	13,9
5. Ia-euskaldun alfabetatugabeak	11.140	3,0
6. Ia-euskaldun pasiboak	12.890	3,5
IA-EUSKALDUNAK	76.042	20,4
7. ERDALDUNAK	264.209	70,6
GUZTIRA	374.207	100,0

- Taula honetan zenbait gauza azpimarra daiteke:
 - Bilbotarren hamarretik zazpi erdaldunak direla, hau da, gehiengo nagusia.
 - Bostetik bat ia-euskalduna da, euskara ikasten (gehiengoa) edo galtzen ari den jendea. Hauetatik erdiak baino gehiago ia-euskaldun alfabetatuak dira: guztiz euskaldun izateko gutxi falta zaie eta epe laburrera euskaldun oso bihur daitezke.
 - Ia hamarretik batera iristen da euskaldunen multzoa. Erabat euskaldun osoak dira, gehienak ulertu, hitzegin, irakurri eta idatzi ongi egiten dutela aitortzen baitute.
 - Kopuruaren arabera garanti txikia badu ere, euskaldun alfabetatugabe eta erdialfabetatu batzu alfabetatu egin direla esan behar.

HIZKUNTZ TIPOLOGIA	1986 %	1981 %	81-86 %
1. Euskaldun alfabetatuak	6,6	3,2	+3,4
2. Euskaldun erdi-alfabetatuak	1,8	2,3	-0,5
3. Euskaldun alfabetatugabeak	0,6	0,7	-0,1
EUSKALDUNAK	9,0	6,2	+2,8
4. Ia-euskaldun alfabetatuak	13,9	9,2	+4,7
5. Ia-euskaldun alfabetatugabeak	3,0	3,0	0
6. Ia-euskaldun pasiboak	3,5	3,0	+0,5
IA-EUSKALDUNAK	20,4	15,2	+2,5
7. ERDALDUNAK	70,6	78,6	-8,0

- Baina, benetan, aldaketa nagusiak *ia-euskaldunen artean* gertatzen dira: 23.000 inguru guztiz euskaldundu direla eta *erdaldunen artean* 22.000 inguru erdi-euskaldun egin direla eta beste 32.000 inguru euskarara hurbildu.

- Datu hauen arabera, beraz, 1981 eta 1986. urteen artean Bilbon euskararen ezagupena hobeagotu egin da, nola euskalduntze hala alfabetatze aldetik.

3. Euskaraz bitzegiteko gaitasuna adinaren arabera

ADINA	GUZTIRA	ONGI	NEKEZ	EZER EZ
4-5	7.457	7,7	15,5	76,8
6-9	18.733	12,6	32,0	55,4
10-14	28.692	12,4	44,8	42,8
15-19	31.489	10,9	42,2	46,9
20-24	35.390	10,5	21,6	67,9
25-29	32.214	10,3	16,1	73,6
30-34	25.819	7,3	13,1	79,6
35-39	23.682	7,1	10,9	82,0
40-44	23.150	6,9	9,8	83,3
45-49	20.340	6,6	7,2	86,2
50-54	26.686	7,3	6,6	86,1
55-59	25.275	7,9	5,5	86,6
60-64	20.198	8,6	6,1	85,3
65 eta	62.121	9,0	16,5	87,2
GUZTIRA	381.246	9,0	16,5	74,5

- EZER EZ dakitenen proportzioa da nagusia, 10-14 urtekoen artean izan ezik.
- NEKEZ dakitenen proportzioa da handiena zaharren (40-65 urtekoen) eta haurtxoen (4-5 urtekoen) artean. Irakas-kuntzaren eta euskalduntzeko ikastegien eragina nabaritzen da.
- ONGI dakitenen datuek Bilbo aspaldi erdalduntutako udalerria dela ematen dute aditzera, maila hori dutenen proportziorik handiena 10-20 urtekoen artekoa delarik.
- Ondorio gisa, garbi ageri da Bilboko berreuskalduntze prozesua ez dela gaurkoa, 30 urte eta gehiago dutenengan ere nabari baitira horren emaitzak. Bestalde, ia haur eta gaztetxo erdiek euskararik batere ez dakitela erantzuteak, irakasteko darabiltzan A ereduaren balio eza nabarmentzen du. Haur eta gazte hauek asteen hiruzpalau ordu derrigorrez euskara ikasten izan arren, guztiz arrotz sentitzen dute.

4. Euskararen ezagupena jaiotze lekuaren arabera

JAIOTERRIA	GUZTIRA		ONGI	NEKEZ	EZER EZ
Bilbo	180.518	47,3	9,9	24,1	66,0
Bizkaia	65.530	17,2	18,1	17,4	64,5
Gipuzkoa	4.627	1,2	39,2	18,1	42,7
Araba	4.472	1,2	5,2	10,1	84,7
Nafarroa	3.634	1,0	6,4	10,1	83,5
Estatua	117.712	30,9	1,8	4,8	93,4
Besterik	4.753	1,2	6,5	13,2	80,3
GUZTIRA	381.246	100,0	9,0	16,5	74,5

- Ia Bilbotarren erdiak bertan sortuak dira eta dagokien euskararen ezagupena, batezbestekoaren inguruan dabil. Zerbait dakitenak beste inon baino gehiago dira, laurdena osatuz. Hirutik bik ez du euskararik ezagutzen.
- Ondoren, kopururik garrantzitsuen Estatutik etorriek osatzen dute, hauen artean euskararen ezagupena hutsaren hurrengo delarik, ia guztiz erdaldunak bait dira.

- Bizkaitik Bilbora joanak bostetik bat inguru besterik ez izan arren, Bilbotarren ezagupenaren proportzioa bikoiztu egiten dute.
- Gipuzkoatik etorri dira denetan euskaldunenak, baina ez dute inolako pisurik, gutxi batzu besterik ez bait dira: %1,2.
- Nafarroatik, Arabatik eta gainerako euskal lurraldeetatik etorritakoen ezagupena parekoa da, batezbestekoaren azpitik daudelarik. Beren pisu espezifiko ere parekoa eta txikia da.
- Bilboko biztanleen artean pisu espezifiko berezia hartzen dute bertan sortuek (gehiengo erdalduna) eta Estatutik etorriek (erabat erdaldunak). Euskara ikastera bestalde, Bilbon eta orohar Euskal Herrian jaioak, Estatuan jaioak baino askoz ere maila altuagoan hurbildu dira.

5. Euskararen ezagupena eta ama-hizkuntza


AMA-HIZKUNTZA	GUZTIRA		ONGI	NEKEZ	EZER EZ
Gaztelania	331.715	87,0	4,3	16,6	78,3
Euskara	17.488	4,6	76,6	14,9	8,5
Biak	12.401	3,3	50,4	33,3	16,3
Euskara+biak	29.889	7,9	65,7	22,6	11,7
Beste bat	19.642	5,2	2,1	5,7	92,2
GUZTIRA	381.246	100,0	9,0	16,5	74,5

- Bilbotar gehienek jatorrizko hizkuntza gaztelania da. Horietatik bostetik bat euskarara hurbiltzen ari da eta %4a ongi hitz egiteko adina ikastera iritsi.
- Jatorriz euskara edo bi hizkuntzak ezagutzen dituztenak hamarretik bat dira.
- Jatorrizko hizkuntza «beste hizkuntza bat» (ez gaztelera) dutenak dira euskarara gutxien hurbildu direnak.

6. Zer nolako bilakaera izan duen euskarak:


A) Hizkuntza Euskara dutenen proportzioa adin taldeka

	2-7	18-24	25-34	35-44	45-65	65 <
BILBO	7,92	5,11	5,63	6,77	8,78	14,44
GASTEIZ	3,66	2,76	2,99	3,02	3,83	4,91
DONOSTIA	28,06	22,76	22,90	25,62	30,61	40,60
E.K.A.	23,10	21,80	21,80	22,00	25,70	34,50



B) Euskara ongi hitzegiten dutenen proportzioa adin taldeka

	2-7	18-24	25-34	35-44	45-65	65 <
BILBO	11,06	9,91	8,22	6,73	7,48	11,90
GASTEIZ	9,15	6,17	5,54	3,76	4,17	5,10
DONOSTIA	31,64	23,86	21,81	21,40	25,02	35,45
E.K.A.	26,40	23,00	22,00	20,90	24,20	32,60



- Ama hizkuntzari dagokionean, kasu guztietan adin altuenekoak dituzte proportzioarik altuenak. Salbuespen bakarra 2-17 artekoen artean ematen da, apur bat goraka egiten dela. (Irakaskuntzaren eragina).
- Euskara ongi hitzegiten dutenei dagokionez ez da gauza bera gertatzen. Adinekoetatik hasi eta bera egiten duena 35 urtez azpikoaren artean gora egiten hasten da.

- Bilbon, Gasteizen ez bezala ama-hizkuntza euskara dutenak baino gehiago dira ongi dakitenak. Horrek zera esan nahi du:
 - Belaunaldi batzuetan nabari dela hizkuntzaren erosio edo higadura. Garbi dago, beraz, giza talde horietan hizkuntzaren galera bat egon dela. Gertaera honek 35 urtetik gorako guztiak harrapatzen ditu.
 - Bestalde, aurrekoari kontrajarria bezala, euskararen berreskurapen prozesuaren adierazle diren datuak agertzen dira. Hobekuntza hori 35 urtekoen adin talderaino iristen da.
 - Bilbok galdu dituen euskaldunak asko izan badira ere, gehiago irabazi ditu, batez ere azken urteotan.

7. Euskararen galera/berreskurapen indizeak

	GAL-INDARRA (1)	GAL-INDARRA (2)	EUTSI- INDARRA	GARA-INDARRA
BILBO	11,31	16,51	63,90	39,68
GASTEIZ	6,34	13,43	71,03	49,89
DONOSTIA	4,85	12,27	77,25	55,12
E.K.A.	2,69	12,0	86,74	52,34

A) GALERA INDIZEAK

- Taula honen arabera Bilboko euskaldunak izan dira bilakaerarik kaskarrena ematen dutenak.
- Galera hau izugarria da, beste hiriburukoarekin gonbaratuz euskaldunen kasuan (Gal-Indarra (1)) eta berez nahiko altua elebiduenen kasuan (Gal-Indarra (2))
- Datu hauen arabera Bilbo hiriak euskara irensteko eta euskaldunak deseuskalduntzeko izan duen indarra benetan bortitza izan da.
- Era berean, euskarari eusterakoan ere Eutsi-Indarraren indizea beste hiriburuetakoa indizea baino beherago kokatzen da. (Inmigrazioa noiz gertatu den ikusi beharko litzateke).

- Azkenik Gara-Indarraren indizeari dagokionean, hau da, jatorriz euskaldun izan eta euskara landuz irakurtzeko eta idazteko gaitasuna lortu dutenen indizea, hiriburu guztietan baxuena du.

B) BERRESKURAPEN INDIZEAK

	AHOZKO ERAK-INDARRA	IDATZIZKO ERAK-INDARRA	AHOZKO EDO IDATZIZKO ERAKAR- INDARRA	BIAK ERAK-INDARRA BIKO
BILBO	4,44	5,43	6,01	3,76
GASTEIZ	3,75	4,46	5,02	3,19
DONOSTIA	6,63	5,26	6,66	5,23
E.K.A.	4,77	4,63	5,83	3,57

- Euskarara hurbildu diren erdaldunen kasuan Bilboko egoera ez da beste hiriburuetakoa baino txarragoa.
- Ahozko Erakarpen-Indarra (Erak-Indarra); Gasteizen baino altuagoa da. Jakina da Erakar-Indarra zonalde erdaldunetan makalagoa gertatzen dela zonalde euskaldunetan baino.
- Idatzizko Erakar-Indarra: Bilboko indizea da hiriburu guztietan handiena. Honek zonaldi erdaldunetan idatzizko Erak-Indarraren indizea altuago izan ohi dela ahozkoa baino adierazten du.
- Ahozko edota Idatzizko Erakur-Indarraren indizea altua da jatorriz erdaldun izan eta euskara ongi hitzegiten eta idazten ikasi dutenen proportzioa ez dela hain eskasa adieraziz.

Ondorioak:

Hipotesi gisa bi prozesu azpimarratu behar dira:

- Bilbo hiriak euskaldunak deseuskalduntzeko agertzen duen indarra, batez ere jatorrizko hizkuntza euskara bakarrik dutenen kasuan. Gertaera honek 35 urtetik gorako adin talde guztiak harrapatzen ditu.

- Bestalde, eta aurreko prozesuari kontrajarrita bezala, euskararen berreskurapen prozesuaren adierazle diren datuak agertzen dira. Hobekuntza hau 35 urtekoen adin-talderaino iristen da.
- Bi prozesu hauen arteko balantzea, orohar, euskararen aldekoa da. Galdu baino gehiago irabazi bait da, portzentaiak aztertzerakoan bestela badirudi ere. Izan ere, kontutan izan behar da jatorrizko euskaldunen unibertsoa ez dela handia (22.000 biztanle inguru) eta alderantziz, jatorrizko erdaldunen 12 aldiz handiagoa dela (272.000 biztanle inguru). Izan ere, euskara galdu dutenen kopurua 7-8 milakoa den bitartean erdaratik euskarara hurbildu direnena 16-18 milakoa bait da.

III Euskararen erabilpenari buruzko datu laburrak

Kontutan izanik Bilbon euskaraz ONGI hitzegiten dutenak %9,0 direla eta NEKEZ egiten dutenak %16,5, espero zitekeen euskararen erabilpen erreala ez zela oso altua izango. Halere bada datu adierazgarriak. Ikus ditzagun alor desberdinetan jasotako datuak:

1. Leku Publikoak

	GUZTIRA		Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak
Enparantza						
Nagusia	7.183	2,6	5,0	2,2	1,3	2,5
Jardin						
Publikoa	5.179	4,8	9,7	2,1	3,0	3,3
Paseatzale	13.351	2,2	3,0	2,8	1,7	2,0
Erosketak						
egiten	6.184	1,9	4,9	2,4	0,1	1,6
Poteoan	6.130	3,1	1,2	5,6	2,0	4,0
Pelotaleku	349	4,6	7,3	2,4	2,1	—
Futbol-zelai	394	—	—	—	—	—
Beste						
Jolastoki	577	3,3	—	1,4	6,0	3,6
GUZTIRA	39.247	2,7	5,1	3,0	1,9	2,5

Entzundako 39.247 pertsonetatik 1.065 ari ziren euskaraz (%2,7)

- Adinari dagokionez, haurrak eta gazteak dira euskara gehien darabiltenak.
- Auzoei dagokienez, auzo zaharrak (euskaldunenak: Abando barrutia, Begoña barrutia, Kasko Zaharra barrutia, Deustu barrutia eta Uribarri barrutia) dira gehien darabiltenak. Azterturiko 39 auzoetatik 10etan INORI EZ zitzaion euskara egiten entzun (3.509 pertsona entzun ondoren).
- Hala ere, esan daiteke euskal hiztunak nahikoa sistemakoki azaltzen direla alor desberdinetan eta honek oztopo guztien gainetik euskararen gune izan daitekeen hizkuntz komunitate bat badagoela adierazten du.

2. Euskara idatziaren presentzia

	GUZTIRA	EUSKARAZ		BIETARA		ERDARAZ	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Publizitatea	3.647	918	25,1	502	13,8	2.227	61,1
Leku-izen ofizialak	325	11	3,4	83	25,5	231	71,1
Establezimendu izenak	1.602	85	5,3	176	11,0	1.341	83,7
Elkarte-izenak	204	116	56,9	50	24,5	38	18,6
GUZTIRA	5.778	1.130	19,6	811	14,0	3.837	66,4

- 40 auzoetako kaleetan ikus daitezkeen errotulu, idazki eta iragarkiak neurtu ziren. Euskaraz zeudenak %20 inguru ziren (4tatik 3 propaganda politikoa) eta bi hizkuntzatan %14 (herena baino gehiago propaganda politikoa).
- Idatzizko erabilpenean euskara piskanaka-piskanaka alor batzutara sartzen hasia da: propaganda, establezimenduetako errotuluak, idazki eta errotulu ofizialak... Euskerazkoak, beraz, erabilpen sinboliko batzu lortu ditu.

3. Gizarte zerbitzuak

	Euskararen ezagupena			Euskararen erabilera		
	Enplegatuak	Euskaldunak	%	Herritarrek	Euskaraz	%
Asistentzia zerbitzuak	773	134	17,3	806	5	0,6
Osasun zerbitzuak	1.378	190	13,8	1.084	27	2,5
Zer. pertsonalak	704	92	13,1	1.003	—	0
Finantz. erakundeak	2.353	278	11,8	853	1	0,1
Merkataritza-zerbitzuak	1.655	152	9,2	2.823	14	0,5
Aisialdi zerbitzuak	638	38	6,0	339	—	0,0
Garraio-komunikabideak	2.351	104	4,4	1.086	2	0,2
GUZTIRA	9.852	988	10,0	7.994	49	0,6

- Enplegatu euskaldunek ez dute ia euskararik erabiltzen.
- Herritarren eta enplegatuaren artean ia ez dago euskarazko harremanik.
- Presentzia idatzia baxu eta sinbolikoa besterik ez da. Bere funtzionamendu guztia erdara hutsezkoa da.
- Sailik euskaldunenak: Aurrezki kutxak, Antzeztokiak, Haur Asistentzia, Liburudendak, Gizarte Asistentzia, Ospitaleak, Jatetxeak.
- Erabilera, oster, oso txikia, Gizarte Zerbitzuetan %0,6 bakarrik. Asistentzia Zerbitzuan zetzobait gehiago, %2,5.

4. Zerbitzu Ofizialak:

	GUZTIRA		UDALA		ALDUNDIA		JAURLARITZA	
	Eusk.	Ia-E.	Eusk.	Ia-E.	Eusk.	Ia-E.	Eusk.	Ia-E.
Erabili	27,7	9,0	27,9	3,2	27,7	17,5	27,6	8,1
Saiatu								
BAI baina	17,6	5,6	14,7	6,4	23,2	6,3	15,3	4,7
Salatu EZ	54,7	85,4	57,4	90,4	49,1	76,2	57,1	85,4
Erabilera orokorra	3,4	1,2	1,9	0,3	2,9	1,3	5,4	1,2
		4,6		2,2		4,2		6,6

- Zerbitzu hauetan, bai enplegatuen eta bai kargu politikoen euskararen ezagupena, Bilboko batezbestekoa baino altuagoa da. Hala ere, gutxi dira euskara laneko harremanetan edo herritarrekin darabiltenak.
- Euskara idatzian dagokionez paperen elebiduntze prozesua ia burutzear dago zerbitzu ofizial guzti horietan. Orain ordea, inprimaki eta paper horiek euskaraz erabiltzea falta da.
- Udal-enpresetan, berriz, enplegatu euskaldunen kopurua altua da, zenbait enpresetan euskaraz edo bietara funtziona dezaketen guneak sor daitezkeelarik.
- Zerbitzu ofizialetan lege euskarari zor zaion ofizialtasuna bermatu ahal izateko hiru norabide hartu beharko ditu prozesuak:
 - Enplegatu euskaldunen kopurua handitu.
 - Kargu politikoen euskara maila gehiagotu.
 - Herritar euskaldunak euskaraz egitera bultzatu

5. *Zerbitzu juridikoak*

Zerbitzu hauek oso erdaldunak dira, euskaldunenak Abokatuen Kolegioa eta epaitegiko subalternoenak direlarik.

Hala ere, hainbat langile euskara ikasten ari da eta gero eta gehiago erabiltzen da idatziz.

6. *Komunikabide sozialak*

Bilboko komunikabide sozialek, salbuespenak salbuespen, ia ez dute euskararik erabiltzen. Bakarrik Herri Irratiko FM-ak. Hala ere, euskara hutsezko bost aldizkari eta hainbat ergitaletxe aurki daiteke.

7. *Erlitjo zerbitzuak*

Bilboko euskaldunen proportzioa harturik, kontatu diren 35 parroketan (auzo bakoitzean bat) apaiz euskaldunen proportzioa oso altua da; erdiak inguru. Beste kontu bat da benetan euskaraz eskaintzen diren zerbitzuen kopurua.

8. Elkarteak

Elkarte mota	Elkarte Kopurua	Bazkideak	Euskararen ezagupena			
			Erantzunik ez		Euskaldunak	
			Kopurua	%	Kopurua	%
1. Aisia	13	1.142	—	—	168	14,7
2. Auzo eta gurasoak	11	2.878	—	—	210	7,3
3. Gastronomia	11	640	37	15,4	136	2,6
4. Giza laguntza	9	2.825	2.300	81,4	12	2,3
5. Kirola	16	35.400	32.130	90,8	794	24,3
6. Kultura	32	2.764	45	1,6	1.020	38,1
7. Nekazaritza	1	216	—	—	170	78,7
GUZTIRA	93	45.860	34.512	75,2	2.510	22,5

Garrantzi handia dute elkarteek Bilbo hiriko bizitza sozialean. Bazkide euskaldunen kopurua biztanleen batzbestekoa baino dezente euskaldunagoa (%22a) da. Hori baino kopuru altuagoa azaltzen dute: Nekazal elkarteek, Kulturek, Kirolerakoek eta Gastronomi elkarteek. Euskaldunen kopururik baxuena agertzen dutenak aise elkarteak, auzo eta guraso elkarteak eta giza laguntzakoak dira.

- Euskararen erabilpen hori apur bat igotzen da kanpoko ekintzetan (ahoz heren batetan eta idatziz erditan). Badirudi, kanpora begira, presentzia gehiago eman nahi diotela hainbat kasutan, behintzat. Barne funtzionamenduan egoerak okerrera jotzen du batipat ahozko harremanetan.

9. Festa eta jaiak

Euskarak lortu du bere lekutxo Bilboko festa eta jaietan, kasu askotan maila folklorikoan bada ere. Hala ere, jaien alorrak aukera onak eskaintzen ditu euskararen presentzia gehiagotzeko, batipat haurrei eta gazteei zuzenduriko ekintzetan. Horrela gertatzen da

Bilboko Aste Nagusian, zenbait auzotako ekintzetan eta Haurrentzako antolatzen diren hainbat ikuskizunetan.

10. *Euskararen aldeko ibarduerak*

Bilbon zehar euskararen aldeko inizatiba askorekin egin daiteke topo; helduentzako ikastaroak, festa eta jaiak, euskararen egunak eta asteak, irteerak, Olentzero edo Santa Ageda bezalako ospakizunak, hitzaldiak, etab. bertso sariketak.

Euskara zabaltzeko neurriak hartzerakoan indar guzti hauekin kontatu beharra dago, lagunduz eta auzo bakoitzean normalizazio dinamikak eraginez.

Bilboko Udalaren Euskara Zerbitzuak eman ditu dagoeneko pauso zehatzak norabide honetan. Urrats horiei ahalik eta etekinik handiena ateratzean datza orain karkoa.

11. *Haurren irakaskuntza*

Aitortu beharra dago euskararen implantazioa oraindik oso eskasa dela Bilboko irakaskuntzan, urtez urte hobetzen badoa ere. 89/90 ikasturtean A ereduaren zen erabat nagusi (%84), nahiz eta D (%8) eta B (%7) ereduak goraka joan apurka-apurka. 1991/1992.eko izena emandako haurren artean hirukoiztu egin dira D/B ereduaren kopuruak, Udalak eginiko aldeko kanpainaren ondoren.

Ikastetxe publikoetan hain aurrerakada handia eman bada ere, arazoa, une honetan auzo guztietan D/B eredurik ez izatean datza. Ikastetxe pribatuetan (ikasle gehien biltzen dutenak) B ereduaren alde egin dute apostu, ikastoletan izan ezik ez delarik D eredurik.

Premiazko da, beraz, Bilbon irakaskuntza euskalduntzeko eta egoera larri honi irtenbidea emateko, irakaskuntzaren inguruko sektore guztiak euskararen normalizazioan inplikatzeko.

12. Helduen euskalduntze-alfabetatzea

Ikasturtea	Guztira	Euskalduntzen		Alfabetatzen	
			%		%
84-85	20.099	19.448	96,8	651	3,2
86-87	27.995	27.401	98,0	554	2,0
87-88	21.149	17.845	84,4	3.304	15,6
88-89	15.221	12.407	81,5	2.820	18,5
89-90	12.432	10.372	83,4	2.060	16,6

Bilbon azken urteotan 15.000 lagun matrikulatu dira urtero euskara ikastera. Ikasleen kopurua, beraz, jaitsi egin da azken urteotan aurreko urteen aldean (lehen 25 mailatik gora izaten bait ziren).

Bestalde, gero eta gehiago dira alfabetatze eta EGA ikastaroetan dabiltzanak eta proportzionalki gutxiago euskalduntze-ikastaroetan dabiltzanak: 3 bat urtetan erdira jaitsi dira.

Ikasle gehienak Euskal Herrian jaioak dira, laurden batek bi gurasoak kanpoan jaioak baditu ere. Gehienak 30 urtez behekoak, ikasketa maila altukoak eta proportziorik nagusienetan langabetuak edo ikasleak dira.

Alor honetan, berrantolaketa, bide berriak eta sostengu handiagoa behar ditu euskalduntze-alfabetatze mugimenduak.

IV. Bilbotarrak eta euskararekiko jarrerak eta eritziak

Atal honetan, bilbotarrek euskarari buruzko galdeketa sakon bati emandako erantzunak aztertuko ditugu. Ikuspegi orokorra emango da bakarrik. 1.500 pertsonetatik 1.247k erantzun zuten. Horien artean 295 lagunek euskaraz egin zuten. Honelako emaitzak atera dira:

1. Euskararen transmisioa

Euskararen transmisio prozesuaren atzerakada nabarmenki isladatu da inkesta pertsonalean. Bi belaunaldiren artean bakarrik, 3 euskaldunetik 1 galdu eginda.

Prozesu honen aldamenean aurkako zentzua daraman beste batekin ere egin da topo, hain zuzen ere, bi gurasoak erdaldunak dituztenen artean %19a euskeraz erantzuteko gai zan bait da.

Euskararen berreskurapenearen zantzuak ere ageri dira, beraz.

2. Euskararen erabilpena

	EUSKALDUNAK		ERDALDUNAK		GUZTIRA	
Gutxiegi	264	89,5	627	65,9	891	71,5
Nahikoa	20	6,8	241	25,3	261	20,9
Gehiegi	3	1,0	20	2,1	23	1,8
Besterik	8	2,7	64	6,7	72	5,8
GUZTIRA	295	100,0	952	100,0	1.247	100,0

Bilbotar gehiengo nagusiak, gaur egungo gizartean euskarari toki gutxiegi ematen zaiola uste du. %2 dira bakarrik gehiegi ematen zaiola uste dutenak.

- Bestalde, garbi ikus daiteke, baita ere, euskararen presentzia soziala nabarmenki igon dela azken urte hauetan Bilbotarren ustez, bereziki esparru publikoetan.
- Zenbat euskara hitzegiten zen duela hamar urte galdetzerakoan, honako erantzunak atera dira:

	Gehiago		Berdintsu		Gutxiago		Besterik	
	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.
Familian	16,6	9,0	23,4	22,1	51,9	55,3	8,1	13,6
Dendetan	8,1	8,4	24,1	12,4	58,6	69,4	9,1	9,8
Kalean	10,5	8,4	12,2	8,5	69,5	75,0	7,8	8,1
Zerbitzu								
Publikoetan	7,5	6,9	16,6	8,5	65,8	73,1	10,2	11,5

- Datu kontrajarriak daude: erdaldunen artean nabariagoa da euskararen presentzia: %10 euskaldunek, ostera, atzera egin dela uste du.

3. *Komunidade sozialen erabilpena*

Honetaz jasotako datu ugarien artean honakook azpikarri daitezke:

- Oraindik euskaldunen artean gehiago kontsumitzen dira erdal irrati-telebistak euskarazkoak baino (aukerak ere gehiago).
- Euskal ikusentzunezko komunikabideak, batez ere euskal telebista, euskaldungoaren gehiengoarengana iritsi da.
- Kasu larria da erdaldunena, telebistazaleagoak izanik ia erdiek (%43,8) ez dute euskarazko kanalerekiko inolako harremanik.
- Erdaldunen artean ere garbia dirudi haurren eragina, laurdenak euskal telebistarekin asteen 10-20 ordu egiten dutela erantzun bai dute.

4. *Euskararako jarrera*

Nola euskaldun hala erdaldunentzat euskara maila guztietan erabiltzeko hizkuntza da, oso gutxi direlarik ezertarako ez duela balio esaten dutenak edo famili harremanetara, herri txikietara edo maila apaletara murrizten dutenak. (Euskaldunen artean %41 eta erdaldunen artean %12,5).

- Aipagarria da euskaldunen arteko euskararekiko lehentasun ideologikoa (%75,9) heren batetara iristen dela eta euskaldunen artean euskararekiko atxekimendua oso handia dela (hiru laurden).
- Lehentasuna euskarari ematen dioten arteko arrazoiak ugariak dira: gure herriko hizkuntza delako, hizkuntza nazionala delako (batipar euskaldunen artean), ama hizkuntza delako etb.
- Lehentasuna euskari ematen ez dioten artean erantzunik aipatuena zera da: besteak probetxagarriagoak direla eta gaztelania beharrezkoa dela.

- Erdaldunen heren batek inon ez zuela euskararen hutsunerik sentitu aitortu zuen, euskaraz ez jakiteak inolazko eragozpenik ez ziola suposatu, alegia. Hutsuneren bat nabaritu zutenek batez ere lagunartean izan zuten.

5. Etorkizuna

Euskararen etorkizunaren aurrean azaltzen diren datuak oso adierazgarriak dira:

		Galtzen joango	Oraingo mugetan	Euskal Herri osora zabalduko	Besterik
Euskaldunak	Aurrikuspena	12,2	16,3	64,1	7,4
	Nahia	—	0,7	97,6	1,7
Erdaldunak	Aurrikuspena	2,7	16,4	75,6	5,3
	Nahia	0,5	9,1	76,5	13,9
Guztira	Aurrikuspena	5,0	16,4	72,9	5,7
	Nahia	0,5	7,1	81,5	10,9

- Bilbotarren gehiengo nagusia euskararen normalizazioaren alde dago.
 - Euskaldunak horrekin erabat ados egon arren, era berean, geroa oso ilun ikusten dutelarik, bi heren besterik ez dira hori lortuko dela uste dutenak.
 - Erdaldun gehienak ere (%12,3 izan ezik) normalizazio prozesuaren alde daude. Etorkizuna euskaldunek baino argiago eta ziurtuago ikusten dute, azken urteotan hartu duen abiadak jarraituko duela uste dutelako.
 - Konpromezu handiagora bultzatuz seme-alabentzat zer nolako heziketa nahi duten galdetzerakoan:
- Orokorrean bilbotarren gehiengoak euskararen aldeko apostua egin du, euskarazko adarra (D) edo adar elebiduna

(B) aukeratuz. Euskaldunen artean aukera nagusia D eredia da. Hala ere, bada A eredia aukeratu duen multzo bat (%2).

	Euskaldunak	Erdaldunak	Guztira
Zehaztugabea	1,7	2,6	2,4
A Eredua	1,4	19,1	14,9
B Eredua	12,2	43,4	36,0
D Eredua	81,7	27,9	40,7
Dena erdaraz	3,1	6,9	6,0

- Bestalde, behin euskaraz eskolatzen hasiz gero, guraso gehienek beren haurrek unibertsitatetaino euskaraz eskolatuko lituzketela erantzun dute.

6. Euskara batua

Euskara batuarekiko jarrera nagusienei buruzko taula:

	Euskaldunak	Erdaldunak	Guztira
Onartzen du inolako baldintzarik gabe	41,7	25,8	29,6
Onartzen du bizkaiera gehiago erabiliz edo aldaketa sakonekin	42,0	15,2	21,5
Zehaztugabea / Indiferentea	9,8	54,3	43,8
Aurka (Bizkaiera baztertzearatik)	6,5	4,7	5,1

- Euskaldun gehienek onartzen dute euskara batua, erdiek bizkaierarekiko begirune gehiagoren beharra azpimarratzen badute ere. Oso gutxi dira aurka daudenak.

7. Euskararen zabalkundea

Euskara non den beharrezkoa galdetu denean, hauek izan dira esparrurik aukeratuena:

	Euskaldunak	Erdaldunak	Guztira
Guztietan	57,3	29,7	36,2
Irakaskuntzan	20,7	44,3	38,7
Komunikabideetan	7,1	5,0	5,5
Admin. Publik.	6,8	7,1	7,1

- Euskaldun erdiek eta erdaldun laurdenek euskara erabiltzea leku guztietan dela beharrezkoa erantzun dute.
- Erdaldunek irakaskuntzari eman diote garrantzia.
- Zabalkundea nola egin galdetzean sakabanatu egin dira erantzunak:
- Administrazio publikoari dagokionean honako erantzunok jaso dira:

	Batere ez	Kontu handiz	Arrazoizko epeetan	Enpleg. berriei	Enpleg. guztiei	Besterik
Euskaldunak	1,0	6,8	35,9	16,9	32,9	6,4
Erdaldunak	10,2	23,0	40,3	9,6	10,6	6,3
GUZTIRA	8,0	19,2	39,3	11,3	15,9	6,3

- Hiritar gehienek beharrezkotzat jo dute Administrazio publikoan euskarari lekua egitea.
- Aldea, eraman behar den prozesuan legoke. Gehiengoak arrazoizko epak aipatzen dituzte.

V. Aurreko datuei «TXEPETX» eginiko iruzkinaren laburpena

Aurreko orrialdeetan eskaini dizuedan «Bilbo eta Euskara» ikerlanari berebiziko iruzkina egin dio José Sánchez Carrión, «Txepetx» deritzanak. Oso interesgarria da hainbat hausnarketa jakingarri gogora ekartzen dizkigulako. Hemen zuzenean ikerlaneko datuei buruz dioena jasoko dut laburkiro, zuok guztiok bere lana osorik irakurtzera gonbidatuz. Besterik beste honakook esaten dizkigu:

«Bilbon ez da inoiz gaur egun beste euskaldun izan; ez eta euskararen halako ezagupen maila handirik; hala ere euskara ez da inoiz hain baztertuta aurkitu gizarte mailan.

1986.eko zentsuaren arabera 33.729 euskaldun eta beste 75.780 erdi-euskaldun bizi dira bertan. Azken hauen datuak ez ditu

kontutan hartu SIADeco-k bere «Bilboko azterketa soziolinguistikoa» ikerlanean.

35.729 euskaldun eta 337.000 erdaldunen artean diren 75.780 erdi-euskaldunak ikasten ari direnak + erdi galdua dutenak dira. Multzo hori garrantzitsua da euskaldunei babesa eskaintzen dielako eta euskararen aldera ekarri epe laburrean euskaldunen kopurua izugarri ugartu daitekeelako.

Beraz, %10 euskaldun eta %20 euskaldunberri (guztiz euskaldundu gabeak) ditugu. Hauek gizartean euskarak izaten duen bilakaeraren arabera euskaldundu daitezkeenak dira.

Bilbo, joan zen mendearen azkenaldian, zenbait faktore tarteko zirela, Euskal Herrian erdara sartzeko bide gertatu zen eta euskararen alde jarri Euskal Herria euskalduntzeko lemazain gerta daiteke.

Joan zen mendean biztanleen 3/4 erdaldunak eta 1/4a euskalduna ziren. Euskaldunak elebidunak ziren, erdaldunak, osterak, elabakarrak. Zeuden erdi-euskaldunak ez ziren euskara ikasten ari ziren erdaldunen artekoak, euskara galtzeko bidean ziren euskaldunen artekoak baino.

Gaur bertako erdaldun guztiak praktikoki elebakarrak eta euskaldunak elebidunak dira. Baina tarte bat dago bi multzo horien artean.

Hizkuntzaren barneko bizilegearen arabera errazago gertatzen da galtzea irabaztea baino. Erdi-euskaldun horien egoerari irtenbidea ematen ez zaion bitartean Bilbo, Euskadiko hiri handi elebiduna izan beharrean, hiri elebakar izango da, normalena erdalduna delarik eta gutxiengoa euskaldungo baztertua.

Aurreko mendeko datuekin konparaketa eginez zera ageri da: Euskaldunen kopurua handiagoa bada ere proportzioa askoz txikiagoa dela, Bilbok, 1704.ean 7.000 biztanle zituen eta 1860.ean 18.000. Hiria 34.000 biztanlera heltzean, deseuskalduntze prozesuak handia izan behar zuen, biztanlegoaren berezko jaiotze bidezkoa gabe inmigrazioaren eraginezkoa zelako. 1980.eko erroldan

Bilbotarren arteko %39 Euskal Herritik kanpo jaioak ziren. Joan zen mendearen amaieran ez ziren 10.000tik gora izango bertako euskaldunak. Historian zehar orain arte inoiz ez ditu Bilbok 15.000 euskaldun baino gehiago izan.

Gaur egun, bestalde, bertako euskaldun gehienak alfabetatuak dira, mendearen hasieran gutxi batzu zirela. Beraz euskararen gizarteko isolamendua ez zaio zor hizkuntzaren gaitasun ezari ez eta biztanleen arduragabekeriari (euskara uzteari), gizarteko harremanak erdara hutzean antolatuak izateari baizik.

Hala ere, gaur egun euskaldun eskolatuagoak eta arduratuagoak izan arren, proportzioetako desorekaren ondorioz euskara gutxiago egiten da. Mende bat dela %25 euskaldun bizi ziren bertan gaur egun %10 baino ez dagoelarik.

Baina arazoaren gakoa ez dago proportzioan, hala badirudi ere, bertako euskaldunak euskaraz biziko balira, erdi-euskaldunak euskalduntzeko indar bihurtuko litzatekeelako. Hizkuntza gutxiengoena izateaz gainera minorizatuta dago eta hemen datza arazoaren sustraia.

Euskararen egoera larri hori ez da hiztunen erruz gertatzen, euskaraz gizarteko zenbait mailatan ateak itxita dituelako baino, Euskara gizarteko gunerik garrantzitsuenetatik baztertua izan delako baino.

Bilboko euskararen azterketan honako hauek nabaritzen dira:

1) Etxeetan euskarari eusteko agertzen den joera handia (%63,9koa).

2) Horretarako motibazio pragmatiko gutxi izan arren, euskara ikastera hurbiltzen diren bilbotar gehienek gaitasun osoa lortu arte jarraitzen dute.

3) Gorago aipaturiko egoera kaxkar horretan euskaldun hiztunen multzoak gorantz egin du.

4) Eskoletan heziketa eredu euskaraz egitea hautatzean nabari den gorakada izugarria. 87/88. ikasturtean 52.212 eskolaumeren artean 8.384-k hartu zituzten beren ikasketak D/B ereduetan. Beraz, horiek nagusi egiten direnean, besterik gabe, euskaldunen proportzioa %9tik %16,05era igoko litzateke. Aurtengo datuen arabera izugarritzko igoera gertatu da B/D ereduetan ikasketak egiteko eskarietan.

5) Kualifikazio handiko euskaldun kultoen ugalketa handia nabari da batez ere gazteengan. 1981.ean 16.371-k zekiten euskara ongi idazten eta 1896.ean 31.155-ek, hau da, %4,2tik %8,2ra iragaten da hiriburuan; honek euskara ikaste bidean zirenen arteko %79,5eko kopuruko 24.784 biztanlek euskara ikasi duela bost urtetan esan nahi du: «Euskararen ezagupenik altuena (batezbestekoa bikoiztuz) erdi-go mailako ikasketak dituztenena da» (Siadeco).

6) Euskara egunerik egunera gehiago erabiltzea ikus daiteke, ingurugiroa, hain aurkakoa izan arren. Honek, gizarteko isolamendua hautsi nahian, berariazko aukera pertsonala dagoela esan nahi du. «Beste fenomeno berezi bat ere ageri da: eremu euskalduneneko eta euskaldunen euskaldunen laurdena, eremu erdalduneneko euskaldunen herena eta eremu erdalduneneko euskaldunen ia bostetik bi euskaraz hitzeginez zenbatu dira eremu bakoitzaren kaleetan zehar» «Harrigarria bada ere, euskara gehien entzun den bi auzokoak multzo honetakoak -erdaldunetakoak- dira». (Uribarri eta Arabella).

7) Euskararen presentzia bultzateko egiten ari diren ahaleginak ere handiak direla ikus daiteke. Euskarak duen eragozpenik nagusia, bada, batez ere gizarte-funtzioetan (hizkuntz komunitatean) datza, ahalegin handi bat nabari delarik auzorik erdaldunetan ere euskararen erabilera idatzi bultzatzen, horrela Otxarkoagan (14.739) biztanleen artean %3,9, euskaldun dituen auzunean «Euskaraz eta elebidun dauden iragarkiak erdaraz daudenak baino gehiago bait dira».

8) Ugariak dira, baita ere, motibazioa bultzatzeko ekimenak, agian, beste zenbait uritan baino maizago eginak, beraietan Euskal

Herria dinamizatzen aritu izan diren talde eta ekintzek (Ibilaldia, Korrika, AEK eguna, Egunkaria, ARGIA eguna, jaiak etab...) duten eragina nabaritu izan dela, beraietan euskalzale ugarik parte hartu izan eta izaten dutelarik.

Gezur hutsa da Bilbon euskara «gordeleku» edo «Administrazioaren kontura bizi diren funtzionarioen fenomeno» dela esatea. Euskararen erabilera, jarraiko kuadrutan ikusiko denez, batez ete herritarren akimenez bultzatu da.

Ezagutza		Erabilera	
Kargu politikodunen aldetik	29,9 %0	Batzordetako politikarien artean	
		%5 Politikoak empletatuekin	
Empletatuen artean	19,3 %5,8	Empletatuak politikoekin	
Empletatuak herritarrekin		%20,9	

Ikusten denez «euskara erabili dutenean, euskaldunen artean herritarra izan da hasi dena (...)

Ondorioz euskaldunek beren borondatea argi ta garbi erakutsi izan dutenez, arazoaren gakoa ezin zaio euskararen berezko ezintasunari leporatu, inguruko egituraketa erdaldunari baizik. Gure ahaleginak, bada, oztopo horiek kentzera jo beharko dute, erdi-euskaldun den multzo handi eta irakaskuntza bidez euskalduntze-bidean aurkitzen dena benetan euskalduntzea lortzeko eta biztanle euskaldunen kopurua ugartzeaz gainera, proportzioan eta gizarteko harremanetan ere aldaketa gerta dadin.

Patxi Uribarren